

ISSN: 2530-6561
2022ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Megaproiektuak

Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala

Gonzalo Fernández, Erika González,
Juan Hernández, Pedro Ramiro

Megaproiektuak

Hazten ari den fenomeno korporatibobaten ikuspegi globala

Gonzalo Fernández, OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria:
gonzalo.fernandez@omal.info

Erika González, OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria:
erika.gonzalez@omal.info

Juan Hernández, OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria:
juan.hernandez@ehu.eus

Pedro Ramiro, OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria:
pedro.ramiro@omal.info

Aurkibidea

Sarrera	4
1. Megaproiektuak kapitalismo berde eta digitalean	5
1.1. Megaproiektua: definizioa	5
1.2. Megaproiektuak egungo kapitalismoan	6
1.3. Zigorgabetasun korporatiboa, megaproiektuak bultzatzeko esparru	11
2. Megaproiektuen parametro komunak	13
2.1. Megaproiektuak bultzatzeko patroi korporatibo nagusiak	13
2.2. Megaproiektuen inpaktuen esparrua	17
2.3. Megaproiektuen aurreko erresistentziarako herri-gakoak	19
3. Bibliografia	24

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala](#)

Egileak: Gonzalo Fernández, Erika González, Juan Hernández, Pedro Ramiro

hegoak zabalduz - 27. zk. 2022ko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Dokumentu honek ikuspegi orokorra eman nahi du egungo agenda politikoaren gai nagusietako bati buruz: megaproiektuak. Desmaterializazioa eta ekonomia globalaren deskarbonizazio azkarra iragartzen duten doinuak entzuten baditugu ere, errealitatea oso bestelakoa da: megaproiektuen muga sektoriala eta geografikoa esponentzialki zabaltzen ari da, bai merkatuak eta balio-kate globalak estaltzearen ondorioz, bai merkatu horiei eusten dien ekonomia berde eta digital berriaren energia eta material premia izugarrien ondorioz.

Lurralde eta ondasun naturalen gaineko ofentsiba korporatibo hori kritikoki aztertzeke asmoz, eta megaproiektuen fenomenoaren definizio batetik abiatuta, lehen kapitulu batean izaera ekonomiko eta geopolitikoko gogoeta batzuk egiten ditugu, irismen globala ulertzen laguntzen digutenak. Azkenik, bigarren kapituluaren sistematizatu egin ditugu multinazionalen megaproiektuen garapenean erabiltzen dituzten patriiak, herri-gehiengoentzako eta ekosistementzako inpaktu sistematikoki negatiboen esparrua, bai eta gizarte-mugimenduei eta komunitateei ofentsiba korporatibo hori geldiarazteko balio izan dieten gako politiko batzuk ere.

Hitz gakoak: Megaproiektua, enpresa transnazionala, kapitalismo berde eta digitala, erresistentzia sozialak.

Abstract: This paper aims to provide an overview of one of the central issues on the current policy agenda: megaprojects. Contrary to the siren calls for the rapid dematerialisation and decarbonisation of the global economy, the reality is quite different: the sectoral and geographic boundaries of megaprojects are expanding exponentially, both in terms of the coverage of markets and global value chains, and the enormous energy and material needs of the new green and digital economy that underpins these markets.

In order to critically analyse this corporate offensive on territories and natural assets, and starting from a definition of the phenomenon of megaprojects, in the first chapter we offer a series of economic and geopolitical considerations that help us to understand the global scope. Finally, the second chapter systematises the patterns of megaproject development used by multinationals, the framework of systematically negative impacts for social majorities and ecosystems, as well as some political keys that have helped social movements and communities to stop this corporate offensive.

Keywords: Megaproject, transnational corporation, green and digital capitalism, social resistances.

Sarrera

Jabetze eta merkantilizazio korporatiboaren mugak ez du atzera egin kapitalismo berde eta digitalaren esparruan. Aitzitik, hedatzen ari da, sektoreka eta geografikoki. Ildo horretan, lur arraroei, mineral kritiko berriei, zentral hidroelektrikoei, parke eoliko eta fotovoltaikoei, nekazaritza-industriako abeletxe erraldoiei eta mota orotako azpiegiturei lotutako megaproiektuak kapitala metatzeko lehentasunezko gune bihurtu dira. Estrategia global horrek sistemaren erdiguneak, periferiak eta erdiperiferiak hartzen ditu barnean, salbuespenik gabe, eta egungo eta etorkizuneko lehentasun politikoak aldatzen ditu.

Aldi berean, meatzaritza-erazketari eta hidrokarburoen erazketari lotutako ekimen klasikoagoek indarrean jarraitzen dute, azken urteotan egiaztatutako ahitze- eta desinbertsio-prozesuak gorabehera. Izan ere, eremu horiek zailak dira ordeztzen, eta, beraz, oraindik estrategikoak dira dinamika kapitalista mantentzeko. Horren erakusgarri ditugu enpresa transnazionalak desizozten ari den Artikoaren erreserbei dagokienez agertu dituzten asmoak, urpeko meatzaritzaren alde egiten duten gero eta apustu handiagoa eta energia fosilerako laguntzei amaiera emateko akordio orori betoia jartzeko duten ahalmena.

Azken batean, megaproiektuek dakarten eraso korporatiboa eguneratzen eta areagotzen ari da, lehorretik, itsasotik zein airetik. Hain zuzen ere, fenomeno hori kritikoki nola aztertu behar den eta aurre nola egin behar zaion azaltzea da txosten honen helburua.

Horretarako, eraso hori munduaren egungo testuinguruan kokatzen saiatuko gara lehenengo kapituluan. Megaproiektuak lurraldeez eta ondasun naturalez jabetzearen bidezko metaketa korporatiboko gunetzat hartzen dituen premisatik abiatuta, megaproiektuen hedapena ahalbidetzen duten joera global nagusiak landuko ditugu hasieran. Zehazki, bizi dugun eta historian antzekorik izan ez duen krisia, kalteberatasun ekologiko larria, etorkizuneko ekonomia digitalizatua eta finantziarizatua, eta garapen kapitalistaren fase berri honen inguruko kontaketa berde berria izango ditugu ardatz.

Ondoren, fase horrek eta, beraz, megaproiektuetan gauzatutako estrategiak aurrera egitea ahalbidetzen duen gobernantza-esparrua aztertuko dugu. Esparru horrek neofaxismoen gorakada eta munduko nagusitasuna lortzeko borroka hartzen ditu barnean, eta, nolahi ere, irabaziaren maximizazioa (balio politiko-juridiko nagusi gisa) eta enpresa transnazionalak (planeta osoko *de facto* gobernu gisa) goستن ditu. Horren ondorioz, sendotu egiten da enpresa horien zigorgabetasuna.

Testuinguruan kokatzeko ariketa horren ondoren, megaproiektuen fenomenoaren aztertuko dugu zehatz-mehatz bigarren kapituluan. Megaproiektuak askotarikoak badira ere, bat gatoz guztiek parametro komun batzuk dituztelako indar-ideiarekin. Horrela, beraz, enpresa handiek megaproiektuak bultzatzeko garaian oro har agertzen dituzten patroi batzuk –denboran egokitzeko moduko estrategia opaku eta dimentsioaniztunetan oinarrituak– identifikatuko ditugu. Halaber, megaproiektuek herritarren gehiengoan eta ekosistemetan dituzten eta asimetria klasistak, heteropatriarkalak eta kolonialak baliatzen eta sendotzen dituzten ingurumen-inpaktuen eta inpaktu ekonomiko, politiko eta soziokulturalen esparrua azalduko dugu. Azkenik, erresistentzia-gako politikoen dekalogo bat sistematizatuko dugu. Gako horiek, azken hamarkadetako ikaskuntza kolektiboari esker, baliagarriak izan dira komunitate eta gizarte-mugimenduentzat botere korporatiboaren lurralde-erasoari aurre egiteko garaian. Azterketa- eta erresistentzia-parametro horiek, azken batean, tresna aproposak dira herritarren esparrutik egiten den borroka indartzeko. Parametro horiek gure gain hartzeak aukera emango luke estrategia korporatiboari aurrea hartzeko eta, aldi berean, agenda propioak finkatzeko, betiere kasu, agente eta testuinguru bakoitzera egokituz.

Beraz, kapitalismo berde eta digitalean sortutako megaproiektuen fenomenoaren ikuspegi orokor eta sistematiko bat ematen du dokumentu honek. Ikuspegi horrek abian den eraso korporatiboa desagitearen alde egiten du argi eta garbi: bizona antolatze modu alternatiboetarako trantsizioak egin behar ditugu lehenbailehen, zalantzarik gabe. Dena dela, modu alternatibo horietan ez dute lekuri, gure ustez, ondasun komunen merkantilizazio eta jabetze pribatuak, produkzio- eta kontsumo-ereduen eraldaketa sakonik gabeko *soluzionismo teknologikoak* eta autoritarismo korporatiboak, hots, kapitalismo berde eta digitalaren benetako ezaugarri bereizgarriak.

1. Megaproiektuak kapitalismo berde eta digitalean

1.1. Megaproiektua: definizioa

Megaproiektuak tamaina eta inbertsio-bolumen esanguratsuko enpresa-ekimenak dira, lurraldeen eta ondasun naturalen jabetze korporatiboaren bidez espazioa berrantolatzen eta produzitzen dutenak, lurralde eta ondasun horiek kapitalaren metaketa-dinamiketan txertatzeko, maila globalean zein toki-mailan.

Megaproiektuak kapital publiko zein pribatuarekin bultzatzen dira, eta enpresa transnazionalak dira megaproiektu bakoitzean –finantza-ekin hasi eta jardueraren garapenarekin amaitzeraino– parte hartzen duten eta megaproiektu bakoitzaren ardura duten (aliantza publiko-korporatiboko logika baten barruan gehienetan) nazioarteko entitateen kateko protagonista nagusiak.

Megaproiektuek¹ balio-katearen fase guztiak hartzen dituzte eraginpean: erauzketa (energia eta meatzaritza), produkzioa (nekazaritza-industria, ehungintza, industria-korridoreak), garraioa eta logistika (autobiak, kanalak, portuak, metaketa eta banaketako guneak) eta kontsumoa (merkataritza-guneak, turismo-guneak)². Nolanahi ere, meatzaritza- eta energia-sektoreak, nekazaritza- eta industria-sektoreak eta azpiegituren eraikuntzaren sektoreak biltzen dituzte horrelako ekimen gehienak, eta haien ekintza-esparrua ez dira planetako periferia eta erdiperiferia politiko-ekonomikoak soilik. Aitzitik, sistemaren erdiguneetan ere zabaltzen ari da.

Fenomenoa indarrean dago erabat. Estraktibismo klasikoarekin batera, ekonomia globalizatu, finantziarizatu, berde eta digitalizatuaren eskakizunei lotutako megaproiektuak protagonismo handia hartzen ari dira gaur egun. Bereziki, honako hauei lotutakoak dira: energia berriztagarriak (parke eoliko eta fotovoltaiakoak, zentral hidroelektriko handiak, hidrogenoari lotutako ekimenak eta abar), material kritikoaren meatzaritza (lur arraroak, litioa, nikela, zinka, beruna, platinoa, kadmioa, telurioa, manganesoa eta abar), digitalizazio-prozesuak (5G sareak, autobide elektrikoak, faktoria erraldoiak, abeletxe industrial erraldoiak eta abar) eta merkatu-hobi berri horien garapen globala bermatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak.

-
- 1 Megaproiektuak oso garrantzitsuak izanik ere, ez dira botere korporatiboaren adierazpen bakarra, eztagutxiago ere. Honako hauek ere daude botere korporatiboaren agendan sartuta: klima-aldaketaren sorkuntzan eta biodibertsitatearen galeran duen protagonismoa; ekonomia berriaren oinarriko lehengaiak diren adimen artifizialeko datu eta zerbitzuen jabetza eta kontrola; finantza-espekulazioan betetzen duen zeregin hegemonikoa; gobernantza korporatiboko eredu baten aldeko jarduna; eta apainketa berde, ostadar-koloreko eta moreko kontakizunak zabaltzeko apustua.
 - 2 «Segurtasunaren industria» megaproiektu askorekin batera garatzen da, 2.1 atalean aztertuko ditugun transnazionalen jarduketa-patroiei jarraikiz.



Egilea: Iñaki Landa.

Megaproiektuek herri-gehiengoan, herrien eta planeta osoaren eskubideetan dituzten inpaktu ekonomikoak, ingurumenari lotutakoak, politikoak eta soziokulturalak zorigaitzokoak dira sistematikoki, jabetzean eta merkantilizazioan oinarrituta baitaude. Sistematikotasun hori, gainera, enpresa handien zigorgabetasunaren arkitektura politiko-juridikoak babesten du (Hernández eta Ramiro, 2015), eta oso nabarmena da interes korporatiboen eta eskubide kolektiboen arteko arau-asimetria.

Izan ere, megaproiektuei buruzko eztabaida bereziki indarrean dago trantsizio-garai honetan, funtsezkoa baita uztartzea, alde batetik, bizitza antolatzeko modu emantzipatzaile berriak, eta bestetik, herritar gehienek baldintza material duin eta bidezkoen bermea. Esparru horretan, tamaina eta eskala handiko ekimen jakin batzuk bidezkoak izan litezke, betiere baldintza batzuei jarraikiz: jabetza komunaren protagonismoa, premia kolektiboak betetzeari eta inpaktuak arintzeari eman beharreko lehentasuna funtsezko balio gisa, eta lurraldearen plangintza demokratikoa, erabakitzeke lehentasunezko tresna gisa. Tamalez, baldintza horiek ez dira gaur egun bultzatzen diren megaproiektuen ezaugarri bereizgarri, ezta gutxiago ere.

Beraz, salbuespen hori aipatu ondoren, esan dezakegu, labur-labur, megaproiektuak kapitala metatzeko helburuarekin egiten diren lurraldeen eta/edo ondasun naturalen merkantilizazio- eta jabetze-prozesuak direla, normalean enpresa transnasionalek zuzentzen dituztenak eta, egungo baldintzetan, herri-gehiengoentzat eta ekosistemarako inpaktu sistematikoki negatiboak dituztenak.

Ikus dezagun orain fenomeno horrek kapitalismo berde eta digitalaren kontakizunari eta praktikari lotutako errealitatean duen garapena eta bilakaera.

1.2. Megaproiektuak egungo kapitalismoan

Egungo krisia haztegi aproposa da megaproiektuak hedatzeko. Gainera, agerian uzten du dinamika kapitalistak erreproduzitzeko duen ezintasuna. Aldi berean, dinamika horrek bere kontraesan guztiak agertu dituela dirudi, eta bizitzaren prekarizazio esponentziala eta orokorra eragin du, baita bizitza bera arriskuan jarri ere.

Izan ere, ekaitz perfektu batean sartuta gaude³, eta elkarri lotutako hainbat fenomeno agertzen dira aldi berean. Alde batetik, hazkunde ekonomikoaren emaitza eskasek geldituta dagoen kapitalismo baten irudia ematen dute, eta kapitalismo horren metaketa-erregimena –globalizazio neoliberal– ahitze-zantzu nabarmenak agertzen ari da produkzio-kateetan zein garraio, logistika eta banaketako kateetan. Ildo horretan, ez da formularik ikusten irabazi-tasak, produktibitateak, kapital-eraketak eta enpleguak gora egiteko mundu-mailako bide egonkorrak sortzeko. Aldi berean, deslokalizazioen ondorio nabarmenek eta ondasun eta lehengaien hornidurarik ezak gero eta neurri handiagoan jartzen dute zalantzan kate ekonomiko globalei emandako lehentasuna.

Hortaz, gaur egun bere izaera opakua, epe laburrekoa eta espekulatiboa sistema osoan ezartzen ari den finantza-kapitalismoaren hazkunde esponenziala eragin du produkzio-ekonomia gelditzeak. Gainera, *itzaleko finantzak* eta inbertsio-funts erraldoiak (BlackRock, Vanguard, State Street, Fidelity, Blackstone, Capital Group eta Cerberus, besteak beste) protagonista ekonomiko nagusi bihurtu dira, eta inolako erregulaziorik gabe dihardute ia sektore eta enpresa handi guztietan (Ash eta Louça, 2019).

Eta kapitalismo gripatu honek, aurreikuspen urriak sortzeaz gain, berak eragin duen muturreko kalteberatasun ekologikoaren esparruan dihardu. Ildo horretan, biodibertsitatea galtzea, ozeanoak azidotzea, ur gezaren urritasuna eta lurren antzutasuna metaketa-logikaren ondoriozko prozesuak dira, eta klima-aldaketa zoro baten eta energia fosilaren eta material kritikoen ahitzearen esparruan elkarreragiten dute.

Badirudi, beraz, planetako tenperaturaren bi gradutik gorako zoritzarreko igoera baterantz goazela, gas kutsatzaileen emisioak drastikoki murrizten ez badira bederen⁴. Aldi berean, gure bizitza erreproduzitzeko dugun eta kapitalismoaren hornigaia den oinarri fisikoaren murrizketa handiari egin behar diogu aurre. Adibidez, eta energiaren eremura mugatuta, energia primarioaren % 90 gainbehera bizkorren fase batean edo bestean dauden iturrietan (petrolioan, gasean, ikatzean eta uranioan) oinarrituta dago. Aldi berean, elektrizitatea kontsumitutako energiaren % 20 baino ez da, eta errazago horni daiteke energia berriztagarrien bidez. Gainerakoa, berriz, petrolioaren deribatuen eta beste bero industrialen mota batzuen mende dago. Beraz, elektrifikazio intentsiboa gorabehera, hidrokarburoek utziko duten hutsunea ezin izango da bete, are gutxiago eskaria gora egiten den testuinguru honetan (Turiel, 2020).






Azken batean, kapitalismoa gripatuta, finantziarizatuta eta metaketa-erregimen globalari dagokionez zalantzan jarrita dago, eta, gainera, muturreko kalteberatasun ekologiko baten testuinguruan dihardu. Horrek guztiak historian antzekorik izan ez den ekaitz perfektua eragin du. Eta, adierazi dugunez, megaproiektuen bidezko lurraldeen aurkako egungo eraso korporatiboaren haztegia da ekaitz hori.

Ildo horretan, ekaitz horrek planteatzen dituen paradoxei aurre egiteko, eliteek berriz antolatu behar izan dute beren agenda: nola sortu eta egonkortu hazkundera irabazi-aurreikuspenik gabe eta ekonomia espekulatibo batean oinarrituta; nola uztartu metaketa eta klima-aldaketaren aurkako borroka; eta nola burutu hori guztia baliabide gutxiagorekin egiteko eginkizuna, itxuraz ezinezkoa. Zirkulu horien koadratura da, hain zuzen ere, elite horien erantzun hegemonikoaren helburua: *kapitalismo berde eta digitala*, non megaproiektuek funtsezko zeregina duten.

3 Fernández, Gonzalo eta Hernández, Juan (2021): «[Otoño caliente, avanzando hacia la tormenta perfecta](#)», El Salto egunkarian argitaratua.

4 Nazio Batuen aditu taldearen (IPCC) seigarren txostenaren lehen ataleko ondorio nagusien arabera, emisioak 2025ean eten beharko lirateke (helburu hori inon aurreikusita ez badago ere), baina, egungo erritmoan, gora egingo dute 2050. urtera arte.

2. Irudia. Kapitalismo berde eta digitalaren kontakizunaren ezaugarri bereizgarriak

Metaketarako merkatu-nitxo berde eta digitalak	Enpresa transnazionalen protagonismoa	Soluzionismo teknologikoa	
			
<th>Hazkunde, emisio eta kontsumo fisikoaren arteko deskoplamendua</th> <th>Megaproiektuen urgarizea</th>		Hazkunde, emisio eta kontsumo fisikoaren arteko deskoplamendua	Megaproiektuen urgarizea
			

Egilea: Iñaki Landa.

Apustu hegemoniko horrek arestian aipatutako paradoxa sistemikoak negozio-aukera bihurtzean oinarritzen du bere kontakizuna. Horren arabera, hazkundera, klima-aldaketaren aurkako borroka eta energiaren eta materialen kudeaketa jasangarria arazorik gabe uztartu litezke. Gainera, ez lirateke aldatuko merkatu globalen lehentasuna, aliantza publiko-pribatuak eta, jakina, irabaziaren maximizazioaren nagusitasuna zibilizazio-balio gisa.

Ildo horretan, *business as usual* delakoa ez litzateke berrikusiko. Aitzitik, energia berriztagarrietan, material kritikoetan, mugikortasunean, *big datan*, adimen artifizialean, 5Gan eta abar aplikatuko litzateke espezifikoki. Horiek guztiak merkatu-hobi estrategiko bihurtuko lirateke geldialdi orokor baten testuinguruan eta ekonomia osoan trakzio-ahalmena duten sektoreetan. Sektore horiek, aldi berean, modu fidagarrian erantzungo lukete aurrean ditugun desmaterializazio- eta deskarbonizazio-erronken aurrean.

Imajinario horren haria digitalizaziotik abiatuko litzateke, funtsezko gunea baita kapitalaren erreproduktzio jarraiturako⁵. Big data delakoaren, plataformen, 5Garen, gauzen Internetaren eta adimen artifizialaren konbinazioa izango litzateke produktibitatean eta kapital-eraketan gehikuntzak (hain estimatuak eta hazkunde berri bat bultzatzeko adierazle strategikoak) sortzeko beharrezkoa den puntako elementua. Ekonomia digitalizatu horrek, aldi berean, drastikoki murriztuko luke energiaren eta materialen premia, eta hazkunde ekonomikoa eta kontsumo fisikoa bananduko lituzke.

Modu osagarrian, beharra bertute bihurtuz, elite globalek energia eolikoaren, fotovoltaikoaren, hidroelektrikoaren, biomasaren, hidrogenoaren eta abarren aldeko apustu saihetsezina egin dute orain, negozioa den neurrian. Gainera, eredu ekonomikoa deskarbonizatzen du elektrifikazioaren bidez. Era horretan, beste deskoplamendu bat bultzatzen da, kasu honetan hazkunderaren eta emisio kutsatzaileen artean. Zirkulua ixten ari da: hazi, desmaterializatu, elektrifikatu eta deskarbonizatu egin nahi da aldi berean, inolako kontraesanik gabe, eta, jakina, enpresa transnazionalen lidergopean, eraldaketa handi hori planeta osoan egin dezaketen agente bakarrak baitira.

5 Labur-labur, ekonomia digital berria datuak bildu eta zabaltzeko eta etengabeko konektibitate-hobekuntzak (5G) egiteko plataforma handietan oinarrituko litzateke. Datu horiek big dataren bidez sailkatu, aztertu eta sistematizatu ondoren, ekonomia-sektore guztietan (gauzen Internetaren bidezko industria-produkzioa barne) aplikatu litezkeen zerbitzu ziberfisikoen garapenari lotuko litzaizkioke adimen artifizialaren bidez.

Hortaz, kapitalismo berde eta digitala metaketa-estrategia korporatibo berrizat har daiteke. Estrategia hori egungo krisiaren eta muturreko kalteberatasun ekologikoaren testuingurura egokituta dago, eta *soluzionismo teknologiko* moduko batean oinarritzen da. Soluzionismo horrek ahalbidetzen du, hain zuzen ere, hazkundearen eta emisio kutsatzaileen arteko eta hazkundearen eta kontsumo fisikoaren arteko desakoplamendu bikoitza. Era horretan, ekonomia berriztagarri eta digitalizatu berria, hari lotutako geoingeniaritzarekin eta bioteknologiarekin batera, itxurazko kontraesan sistemikoak prozesuaren oinarri den merkatu-logikari uko egin gabe konponduko lituzkeen formula magikoa izango litzateke.

Arazoa da desakoplamendu bikoitz horri emandako soluzioa funtsean faltsua dela eta inolako oinarri historikorik eta fidagarritasunik ez duela. Lehenik eta behin, efizientziari lotutako hobekuntzek hazkundearen eta emisioen arteko desakoplamendu erlatibo bat baino ez dute lortzen⁶. Beraz, hazkundeak emisioen gorakada dakar oraindik maila globalean. Izan ere, aurrerapen teknologikoak gorabehera, gaur egungo CO2 emisioak 1990ekoak baino % 60 handiagoak dira. Ildo berean, Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak (IPCC, ingelesezko siglen arabera) adierazi duenez, emisioak urtean % 10,5eko proportzioan murriztu beharko lirateke Parisko Hitzarmenean planteatutako helburu klimatikoa (1,5 °C) lortzeko, betiere BPGd globalak % 3ko igoera jarraitua badu. Kontua da historian erregistratutako desakoplamendu-mailarik handiena % 3ra iritsi zela joan den mendeko 70eko hamarkadan, hau da, xede gisa planteatutako % 10,5etik oso urrun (Pérez, 2020).

Era berean, ekonomia berde eta digital berriak ez du murrizten energiaren eta materialen kontsumoa. Aitzitik, esponentzialki areagotzen du gaur egun estrategikoak diren ondasunen kontsumoa (Valero eta Valero, 2021). Ahitzen ari diren hidrokarburoen ordezkagarritasunari buruz adierazitakoaz gain, aipatu beharra dago digitalizazioaren eta energia berriztagarrien aldeko apustuak beste fenomeno bat ahalbidetzen duela: nagusiki metalikoak diren hainbat mineralekiko mendekotasun anizkoitza. Mineral horien artean, honako hauek daude: zilarra, kadmioa, kobaltua, kromoa, kobrea, lur arraroak, indioa, litioa, manganesoa, nikela, beruna, platinoa, telurioa, zinka eta abar. Izan ere, eskariaren egungo igoera-erritmoan, mende honetan agortuko dira mineral horiek, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, eta hornidurarik ezaren lehen sintomak sentitzen hasiak gara dagoeneko.

Beraz, kontuak ez dira ateratzen. Desakoplamendu hipotetikoak ez dira bideragarriak. Aitzitik, berrelikatu egiten dute elkarren arteko antagonismoa. Kapitalismo berde eta digitalaren oinarri den teknologiarekiko fedea aurrera egindako ihesaldia baino ez da, eta ez dio zehaztasunez heltzen egungo egoera ekologikoari. Gainera, planteatutako hazkunde-helburuak lortzeko ere ez du balio izango⁷. Aldi berean, hainbat arazo areagotzen ari dira, hala nola enpleguaren suntsipena, lan-prekaritatea (Fernandes, 2020), autoritarismo korporatiboa eta, oso bereziki eta aztergai dugun kasurako, megaproiektuen bidez gauzatutako eraso.

Azkenik, atal honen indar-ideia nagusira iritsi gara: kapitalismo berde eta digitalak lurraldeen eta ondasun naturalen jabetze eta merkantilizazioaren muga zabaldu du, sektore estrategiko berrien energiarekiko eta materialekiko gero eta mendekotasun handiagoaren eta sektore horiek behar dituzten azpiegitura orokorren ondorioz. Ildo horretan, potentzia global nagusiak egungo krisiaren eta pandemiaren testuinguruan bultzatzen ari diren programetan, megaproiektuak dira bultzatu beharreko tresna nagusia. Haien indarreko estrategien barruan, Zetaren Bidea, bateria eta automobil elektrikoek fabrikak, aire zabaleko meategiak, parke eoliko eta fotovoltaiakoak, zentral hidroelektriko handiak, abeletxe erraldoiak eta mota orotako eraikuntzak ditugu, toki-eremutik kontinenteaz gaindiko eremuraino zabaltzen den eskala anitzeko logika baten barruan.


Krisiaren eta gero eta handiagoa den hornidurarik ezaren testuinguruan eskualde-bloke bakoitzaren estrategia korporatiboak garatuko dituen oinarri fisiko bat bermatzeko muturreko lehiakortasun horrek

6 Banantzea, beraz, unitate ekonomiko bakoitzeko emisio-proportzio txikiagoa dela esan daiteke. Nolanahi ere, BPGd-ak gora egin ahala, emisioek gora egiten jarraitzen dute termino absolutuetan, salbuespenik gabe. Ekonomia zentralen gero eta tertziarizazio handiagoak eta balio-katearen fase industrialen zati handi bat Asiara eramateak hobetu egiten dituzte desakoplamenduaren datuak, eta gobernuek desakoplamenduaren indarra bermatzeko erabiltzen dituzte. Dena dela, zifra garrantzitsuak balio-kate globalaren arabera neurtutakoak dira, eta haiek erabateko desakoplamenduaren ameskeria baliorik gabe uzten duten emaitzak dituzte.

7 Ez da igoera egonkorrik ikusten produktibitatearen eta kapital-eraketaren adierazleetan, ekonomia digitalizatuan murgildutako hamarkada baten analisi historikotik abiatuta gainera. Era berean, ez da aurreikusten hazkunde-bide egonkorrik murriztu egingo den oinarri energetiko eta material batekin.

areagotu egiten du megaproiektuetan oinarritutako eraso hori. Eta, gainera, lehentasun geopolitikoak aldatzen ditu, baliabide urriak eta desiatuak non kokatuta dauden kontuan hartuta. XX. mendean, hidrokarburoak izan ziren lehentasun nagusia. Gaur egun, berriz, hidrokarburoak oraindik oso garrantzitsuak badira ere, mineral metalikoak (litioa, kobaltoa, lur arraroak, fosfatoak eta abar) bihurtu dira lehia-ardatz.

Hona hemen adibide batzuk: Txinak ibilgailu elektrikoetan eta mota orotako produktu digitaletan erabiltzen diren lur arraroen % 85 kontrolatzen ditu gaur egun; Australiak energia baterietan biltegitratzeko funtsezkoa den litioaren % 65 erazten du, eta erreserben % 51 Boliviak, Txilek eta Argentinak osatzen duten trianguluan daude; Kongoko Errepublika Demokratikoan, bateriak egiteko beharrezkoa den kobaltoaren erazketaren % 70 biltzen da; eta nekazaritza-industrian erabiltzen diren ongarrietarako estrategikoak diren fosfato batzuen erreserba nagusiak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan daude (Pérez, 2020).



Iturria: Nazioarteko Energia Agentzia (2021).

Kontakizun berria eta lehentasunezko sektore berriak, baina irabaziaren maximizazioaren, hazkundearen, merkatu globalen eta aliantza publiko-pribatuen aldeko apustu berak. Horren emaitza megaproiektuak eskala globalean zabaltzen dituen ekaitz perfektua bizkortzea da. Megaproiektu horiek, ondoren ikusiko dugunez, erraz zabaltzen dira enpresa transnazionalen neurriira egindako gobernantza-esparruan.

1.3. Zigorgabetasun korporatiboa, megaproiektuak bultzatzeko esparru

Egungo egoera politikoa bereziki aztoratuta dago. Alde batetik, kontakizun eta jardunbide neofaxistak mundu osoan hartzen ari diren indarra areagotzen ari da krisia, eta gero eta biztanleria-sektore gehiagoren prekarizazioa, bazterketa eta kanporatzea ahalbidetzen du.

Bestetik, Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak munduan nagusi izateko duten lehia areagotzen ari da, eta Europar Batasuna bere posizioa berreskuratzeko ahaleginetan dabil, *Itun Berdearen*⁸ bultzadan oinarrituta. Ildo horretan, azken urteotako eskualde-blokeen arteko merkataritza-gerra iceberg baten punta baino ez litzateke izango, eta iceberg horrek kapitalismo berde eta digitalaren merkatu-hobiak eta lurraldeak kontrolatzeko eta horien garapenerako behar den oinarri fisikoa eskuratzeko borroka du funtsezko oinarri. Horren ondorioz, baliabide subiranoez jabetzeko estrategia neokolonialak suspertu egin dira, batez ere Latinoamerikan eta Afrikan, eta megaproiektuetan gauzatu dira.

Ez dirudi egoera aztoratu hori esparru aproposa denik eliteek gaur egungo egoerari erantzun politiko koordinatua emateko. Ildo horretan, nabariak dira eskualde bakoitzeko askotariko interesak eta ikuspegiak. Hala ere, krisi sakonari, muturreko kalteberatasun ekologikoari eta ziurgabetasunari lotutako egungo egoeraren ondorioz, eskualde-bloke bakoitza antzeko gakoetan oinarrituta ari zaio erantzuten egungo shockari, bere ahalmenen eta ekintza-eremuaren arabera. Hau da, bakoitza bere interesak blindatzearen bidez, bere estrategia korporatiboek aurrera egitea ahalbidetuko duten jarduketa-esparru politikoetatik abiatuta.

Horrela, beraz, kapitalismo berde eta digitala –lehentasun nagusia elite guztientzat– hertsiki lotuta dago enpresa transnazionalen lehendik zuten zigorgabetasunaren egitura politiko-juridikoaren sendotzearekin. Beraz, apustu bera egiten dute, beti tirabira sozial eta geopolitikoen ondoriozko kontraesanei lotuta badago ere.

Hortaz, egungo kapitalismoak are neurri handiagoan prestatzen die lurreratzeko pista megaproiektuei, bide bikoitzetik: alde batetik, premiaz onartzen dira horrelako ekimen korporatiboak garatzeko *ad hoc* legeriak; bestetik, ekimen horien arduraren duten korporazioen interesak juridikoki blindatzen dira, inbertsioen segurtasun juridikoa bermatzeko eta merkataritza beste edozein balio edo printzipioren gainetik zabaltzeko eginkizun nagusia duten merkataritza- eta inbertsio-itunak eguneratzearen eta/edo berriak sinatzearen bidez.

Estrategia politiko ofizialak, beraz, *lex mercatoria* delakoaren mesederako eta giza eskubideen kalterako arau-asimetria nabarmen batean oinarritutako alde aurreko esparru juridiko-politikoa baliatzen du lehenik eta behin (Hernández eta Ramiro, 2015). *Lex mercatoria* diogunean, nazioarteko ordenamendu juridiko oso bat adierazi nahi dugu, merkataritza-akordioez, inbertsio-itunez, doikuntza-planez, hitzarmenez, kontratuez eta abarrez osatua eta enpresa handien interesak zaintzen dituen, galdagarritasun eta justiziabilitate handiko logikari jarraikiz. Ildo horretan, bereziki zorrotzak dira inbertitzaileen eta estatuen arteko auzietarako nazioarteko arbitraje-sistema pribatuak. Justizia pribatizatu horren laudoak hertsagarriak dira (eta milioi askokoak), estatuetakoa eta nazioarteko auzitegien irizpide, funts eta legitimitatetik kanpo badihardute ere. Horrela, beraz, *konstituzio korporatibo global* moduko bat osatu da, XXI. mendean zabaldu diren merkataritza- eta inbertsio-itunen bolada berriari esker planeta osoan multinazionalen interesen aldeko ultrarregulazio bat zabaltzen duena (Fernández, 2018).

Aldiz, ez dago tresna juridiko eraginkorrik transnazionalen jarduera ekonomikoen inpaktuak kontrolatzeko. Korporazio handiek giza eskubideen arloan dituzten betebeharrak ordenamendu nazional batzuei lotuta daude, baina ordenamendu horiek araugabetu eta malgutu egin dira atzerriko inbertsioa gizarte-, zerga-

8 Testu osoa eskuragarri dago hemen: EB (2019): [Europako Itun Berdea](#).

eta ingurumen-baldintzarik gabe erakartzeko, eta, askotan, beren xedapen juridikoak aplikatzeko gaitasunik ez duten egitura judizial eta administratiboak dituzte. Horrekin batera, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ahultasuna eta ezaugarri bereizgarri gisa borondatezkotasuna, aldebakartasuna eta galdagarritasun juridikorik eza dituen gizarte-erantzukizun korporatiboa ez dira batere baliagarriak *lex mercatoria* horren indarra orekatzeko.

Hiru printzipio horiek (borondatezkotasuna, aldebakartasuna eta galdagarritasunik eza) dira, hain zuzen ere, multinazionalak, megaproiektuak eta giza eskubideak lotzen dituen tresna global nagusiaren ezaugarri bereizgarriak. Tresna hori *enpresen eta giza eskubideen printzipio gidariak* edo «Ruggie printzipioak» (idatzi zituen ordezkar bereziaren izenagatik) dira (Nazio Batuak, 2011). Printzipio horiek gordin-gordin agertzen dute arau-asimetria. Izan ere, inolako kontrol- eta zehapen-instantzia multilateralik ezari buruz diotenez, estatuak baino ez dute arduratu behar giza eskubideen babesaz, eta enpresa handiei, berriz, eskubide horiek errespetatzea, behar bezalako arduraz jokatzera eta kalteak ordaintzea (haien erantzukizuna frogatzen bada) dagokie, besterik gabe. Modan dagoen *behar bezalako arduraren* paradigma berriak ez du hobetzen asimetria hori. Izan ere, araudi lotesle bat ezartzeko aukera kontuan hartzen bada ere, enpresa-planen aldebakartasuna da oinarria, eta ez dago instrukzio eta erregulazio demokratikoko formularik (Hernández, González eta Ramiro, 2020). Horren ondorioz, beraz, enpresa transnazionalak, *de facto*, ez dira lotuta egon, edota oso modu malguan baino ez, kontrol publikoko eta herritarren kontroleko mekanismoei.

Nolanahi ere, adierazi dugunez, egungo estrategia ez da alde aurreko gobernantza korporatiboa baliaraztera mugatzen. Eliteek, halaber, zigorgabetasun-esparrua sendotu nahi dute, egungo shocka baliatuta megaproiektuen erasoak bultzatzeko.

Horren bidez, are neurri handiagoan ari dira murrizten botere demokratikoa toki- eta lurralde-mailan. Ildo horretan, ugaritu egin dira megaproiektu-mota askotan aplikatzeko moduko kontzeptu batzuen ekintza-eremua kokatzen eta zabaltzen duten araudiak. Kontzeptu horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: *interes komuneko proiektuak* (Europar Batasuna), *interes publikoko eta segurtasun nazionalako proiektuak* (Mexiko), *ekonomia suspertu eta eraldatzeko proiektu estrategikoak* (Estatu Espainola), *goi-mailako interes publikoko proiektuak* (Euskadi). Kontzeptu horiek babes diplomatikoa, garatzeko laguntza-mota oro, legeria malguagoak gardentasunari dagokionez, eta, batez ere, gobernantza-maila gorenetan (botere korporatiboa errazago sartu ohi den mailetan) erabakiak hartzeko aukera bermatzen dizkiete enpresa transnazionaleri, eta jardun demokratikoa eragozten diete bereziki kaltetutako herritarrei.

Bestalde, modu osagarrian, merkataritza- eta inbertsio-itun berrien bidez konstituzio korporatibo globalak aurrera egiteko eskatzen dute. Tentsio ekonomiko eta geopolitikoak ez du aukera ematen akordio handiak abian jartzeko, hala nola zerbitzuen inguruko akordio globala (TISA, ingelesezko siglen arabera⁹) eta gaur egun geldirik dagoen Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren artekoa (TTIP), baina hori ez da oztopo merkantilizazioaren agendak eskualde-izaera handiagoko eta/edo alde biko bideetatik jarraitzeko.

Ildo horretan, 2022ko urtarrilaren 1ean, Eskualde Aliantza Integratzaile Ekonomikoa (RCEP) jarri zen abian, hau da, munduko merkataritza-akordiorik handiena, Txinaren gidaritzapean; 2021eko urtarrilean, berriz, Afrika Kontinentaleko Merkataritza Libreko Eremua (AfCFTA) jarri zen abian, eta 1.300 milioi pertsona hartzen ditu eraginpean; azkenik, Europar Batasunak aurrera egin du Mercosurrekiko akordioaren inguruko negoziazioetan eta dagoeneko indarrean dagoen Mexikorekiko akordioaren eguneratzean¹⁰. Horiek guztiak aurrerapauso esanguratsuak dira garapen kapitalistaren fase honi lotutako megaproiektuen nazioarteko zigorgabetasun- eta blindaje-esparrua finkatzeko bidean.

Azken batean, kapitalismo berde eta digitalak lurraldeez jabetzeko eta lurraldeak merkantilizatzeko eraso bat planteatu du. Aurrera egindako ihesaldia da, eta eliteak gero eta zigorgabetasun handiagoko esparru batean diharduen botere korporatiboaren autoritarismoa sendotzen ari dira toki-mailan, estatu-mailan zein nazioartean.

9 Paragrafo honetan aipatutako merkataritza- eta inbertsio-itunak ingelesezko siglekin aipatzen dira.

10 Pandemiaren hasieratik merkantilizazioaren agendak egin duen aurrerapausoari buruzko azterketa baterako, irakurri honako artikulua: Fernández eta Kucharz (2020): *La agenda mercantilizadora no para a pesar de la pandemia*, NAIZen argitaratua.

2. Megaproiektuen parametro komunak

Megaproiektuen fenomenoaren ezaugarri nagusietako bat aniztasuna da. Definizioan adierazi dugunez, lurraldeen eta ondasun naturalen jabetze korporatiboko tresna sistematiko bat da, eta balio-katearen fase guztietan agertzen da, askotariko sektore ekonomikoetan gauzatzen da, eta planeta osoko gero eta lurralde gehiagotan zabaltzen da.

Aniztasun horren ondorioz, megaproiektu bakoitzaren izaera testuinguruan behar bezala kokatutako hainbat aldagaiaren araberakoa da: inplikaturako enpresen ibilbidea eta jokabidea; jarduketa-sektorea eta ekonomikoki eta geopolitikoki duen garrantzia; espero diren inpaktuak; lurraldearen esparru politikoa eta arau-esparrua; eta inplikaturako komunitateen kohesioaren, egituraketaren eta mobilizazio-ahalmenaren maila, besteak beste.

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi megaproiektu gehienek garapenean *parametro komun* ez dagoenik, izaera zehatza edozein izanik ere (Fernández, 2020). Ildo horretan, baieztatu dezakegu, lehenik eta behin, enpresa transnazionalen jardunaren bereizgarri diren jarduketa-patroi batzuk daudela megaproiektuen inplementazioan. Izan ere, enpresa transnazional guztien ezaugarri bereizgarri nagusia den kapitalaren metaketaren logikak eta enpresa horiek diharduten testuinguru global gero eta uniformeagoak esparru eta joko-arau aproposak ahalbidetzen dituzte estrategiak batzeko.

Bigarrenik, *modus operandi* horren ondorioz, megaproiektuek komunitateetan, herri-gehiengoetan eta ekosistemetan izan ohi dituzten inpaktuak partekatutako esparru baten barruan sistematizatu daitezke. Inpaktuak mota orotakoak dira (ekonomikoak, ingurumen-arlokoak, politikoak eta soziokulturalak), eta, nolanahi ere, klase, genero eta etnia/arrazako asimetriei lotuta daude, besteak beste. Jakina, inpaktuen garapena eta intentsitatea kasu bakoitzaren araberakoa da. Edonola ere, dokumentaturako salaketen azterketa historikotik ondorioztatu dezakegunez, enpresa handien jarduketa-patroiek antzeko ondorioak izan ohi dituzte.

Azkenik, megaproiektuen fenomenoaren hirugarren parametro komuna ez dago jarduketa korporatiboari lotuta, herri-erresistentziari baizik. Ildo horretan, erakundeek enpresa handiak arautzeko egindako ahaleginek eta, batez ere, azken hamarkadetakako borroka-esperientzia komunitario eta sozialek aukera eman digute baldintza jakin batzuetan aurrerakada korporatiboa geldiarazteko baliagarriak izan diren gako politiko batzuei buruzko ikaskuntzak biltzeko. Herri-jakintza kolektiboak dira, eta behar bezala egokitu eta testuinguruan kokatu ondoren, sistematizatu egin litezke. Horren ondorioz, enpresa transnazionalak zuzentzen duten egungo lurralde-erasoaren kontrako borroka berriak sor litezke.

Horixe da, hain zuzen ere, kapitulu honen helburua: megaproiektuak bultzatzeko ohiko parametroak sistematizatu, aurrera egin ez dezaten. Parametro horien identifikazioari esker, tresna politikoak eraikitzeko bidean aurrera egiten jarraitu ahal izango dugu. Tresna horiek, alde batetik, enpresa-dinamikak ulertzea eta haiei aurrea hartzea ahalbidetuko digute. Bestetik, lurraldeen aurkako eraso korporatiboari aurre egiteko herri-estrategiak indartu eta hobetuko dituzte.

2.1. Megaproiektuak bultzatzeko patroik korporatibo nagusiak

Enpresa transnazionalen jardunaren ezaugarri nagusia *opakutasuna* da. Opakutasun hori, lehenik eta behin, megaproiektuaren kate globalean (finantzaketatik inplementazioraino) parte hartzen duen entitate-mordoiloari lotuta dago. Era horretan, zaildu egiten da entitate bakoitzak ekimenean duen erantzukizun zehatza detektatzea.

Bigarrenik, megaproiektua hasieran prestatzen denetik amaieran egikaritzen den arte egiten den gardentasun txikiak politikoari lotuta dago. Izan ere, enpresa-tresna multzo baten bidez, aliantza publiko-korporatiboak informazio publikoa jasotzeko eta erabakiak demokratikoki hartzeko eskubideen gainetik ezartzen dira.

Azkenik, opakutasuna ez dagokien subjektu erantzuleari eta ekintza politikoari soilik. Aitzitik, ekimenari legitimazioa eman nahi dion kontakizun hegemonikora ere zabaltzen da. Izan ere, aurrerabideari, ongizateari eta aukera ekonomikoari lotutako imajinario bat hedatzen da, eta, beraz, inpaktu negatiboak ezkutatu eta/edo txikiagotu egiten dira.

1. taula. Patroi korporatiboak

<p>Opakutasuna</p>	<p><i>Megaproiektuaren kate globala:</i> askotariko enpresa ugariz osatutako hidra korporatiboa, kontrol operatibo zehatz baina opaku bati jarraikiz diharduena, enpresa-ekimenaren finantzaketan, abalean, egikaritzean, kontratazioan, azpikontratazioan eta garapenean parte hartzen duena eta haien ardura duena.</p> <p><i>Borroka politikoaren garapena:</i> aliantza publiko-pribatuak, lobbya, arau-aldaketak, kooptazioa, ustelkeria, laguntzak jatorrian (enpresa-nazioartekotzea) eta helmugan, nazioarteko erakunde ekonomikoen babesa eta abar.</p> <p><i>Kontakizun ofiziala:</i> eragin daitezkeen inpaktuak ezkutatzeko estrategia, enpresa-ekimenaren aurrerapausoak legitimatzeko aurrerapen- eta garapen-kontakizun baten barruan.</p>
<p>Dimentsioaniztasuna</p>	<p><i>Legitimazio-estrategia:</i> estrategia horrek, unearen eta egoeraren arabera, jarduketa ekonomikoak, kulturalak, komunikatiboak, politikoak eta juridikoak uztartzen ditu. Lehenik eta behin, legitimazio sozial eta politikoa bilatzeko ikuspegi bat garatzen du, gizarte-erantzukizun korporatiboa eta gizarte-ekintza, kontakizun ofizialaren inguruko komunikazioa, <i>alderdiak eskatuta</i> egindako ikerketak eta abar oinarri hartuta.</p> <p><i>Estrategia hertsagarria/indarkeriazkoa:</i> legitimazio-ikuspegia nahikoa ez bada edota modu osagarrian, errepresio- eta indarkeria-logika bat gara liteke, honako ezaugarri hauekin: buruzagien kriminalizazio soziala eta juridikoa, kooptazioa, komunitateen zatiketa, indarrean dagoen araudia ez betetzea eta indarkeria erabiltzea (zuzenean edota erakunde publikoen dinamika errepresibo eta militarizatua bultzatuta).</p>
<p>Moldagarritasuna</p>	<p><i>Denbora-ikuspegi malgua:</i> estrategia, botere asimetrikoan babestuta, epe laburrekoa izan daiteke (helburu espekulatibo hutsekin), edota epe luzerako apustuak egin daitezke, baita lege-eguzteko aurre eginez ere. Era horretan, jarduketak kapitala metatzeko azken helburura egokitzen dira.</p>

Iturria: geuk landua.

Megaproiektuetan parte hartzen duten entitateen mordoiloari lotutako opakutasun korporatiboari buruzko azterketari hasiera emateko, azpimarratu beharra dago erantzukizuna ez dela megaproiektuak egikaritzen dituzten korporazioena soilik. Erantzukizuna kate batean zehar zabaltzen da. Kate hori globala da gehienetan, eta megaproiektuaren finantzaketan hasi eta ondasun naturalen eta lurraldeen jabetze korporatiboa abian jartzean amaitzen da (González, Casado eta Fernández, 2020).

Kate global hori forma juridiko eta hainbat izen (sukurtsalak, filialak, kontratak, azpikontratak eta abar) jasotzen dituen eta zerga-paradisuetan adar sistematikoak dituen sozietate-hidra konplexu baten eran osatzen da. *Ex profeso* egindako diseinu horrek arrazoi bikoitza du: alde batetik, neurri handiagoan edo txikiagoan inplikaturako korporazioen erantzukizun politiko-judiziala ezkutetzea; bestetik, «megaproiektuaren operazio-zentroaren», hau da, megaproiektuaren bilakaerari lotutako erabaki eta baldintza nagusietan lidergo politikoa beren gain hartzen duten multinazionalen erantzukizun espezifikoa txikiagotzea. Sozietate-mordoiloak, azken batean, multinazionalen zeregina jarduera korporatiboaren ondoriozko inplikazio juridikoetatik bereiztea ahalbidetzen du, eta, gainera, aurreko kapituluan aipaturako zigorgabetasunaren egituraren babesa dute multinazionalak.

Erantzukizunak barreiatu eta blindatzeko jardunean ez ezik, jarduketa-esparru politikoan ere islatzen da opakutasuna, eta fase guztietan gainera, prospekzio- eta ustiapen-baimenak lortzearekin hasi eta ekimena egikaritu eta garatzeraino. Prozesu hori guztia aliantza publiko-korporatiboko logika baten barruan garatu ohi da, eta enpresek harrapaketa publikoko tresna agresibo ugari erabiltzen dituzte, hala nola lobbyaren figura, kargudun eta langile publikoen kooptazioa, ustelkeria, borondateen eresketa, ate birakariak eta abar. Era horretan, bidezko baimenak ziurtatzen dituzte, beharrezkoak diren arau-aldaketak (egikaritu aurretik zein ondoren) eta nazioarteko erakunde ekonomikoen abala bermatzen dituzte, laguntza eta dirulaguntza

publikoen bidez (jatorrian zein helmugan) proiektuaren kapitalizazioa bermatzen dute, eta erakunde ofizialen baliabide politikoak, diplomatikoak, legalak eta errepresiboak proiektuaren zerbitzura jartzen dituzte.

Aliantza horien *b alde*a alde aurreko gutxieneko demokratikoen desegitea izan ohi da: eztabaida, erabakiak hartzea eta jendaurreko informazioa sakrifikatu egin ohi dira kapitalaren metaketaren aldrean. Izan ere, «botere korporatibo» kontzeptu zabalaren barruko erakunde-konplizitateei esker (alkateak, estatuko organismoak, probintziak, departamentuak eta abar), gerta daiteke herritarrak eta komunitateak emakida onartuta dagoenean edo obrak egikaritzen hasi direnean kontzientziatzea megaproiektuaren inguruan.

Azkenik, megaproiektuaren inpaktuei buruz hedatzen den kontakizun ofizialera ere iristen da opakutasuna. Ildo horretan, megaproiektua aurrerabidearekin, garapenarekin eta ongizatearekin lotzen duen imaginario bat lantzen da. Horren bidez, honako alderdi hauek azpimarratzen dira: enpleguaren sorkuntza, inbertsioen gehikuntza, transferentzia teknologikoa, tokiko ekonomia bultzatzeko efektua eta lurraldea nazioartean txertatzea, besteak beste.

Ustezko onura horiek, ordea, oso izaera desberdina agertzen dute, oro har, errealitatean: tokiko enpleguak, sortzen badira, eraikuntzaren epe laburrera mugatzen dira, eta gizonezkoenak dira nagusiki; inbertsioak ere prozesuaren hasieran baino ez dira egiten, baina lurraldea eraldatzen dute, zenbaitetan behin betiko; ia ez da ahalmenik eta teknologiarik transferitzen; toki-sarea bultzatzeko efektua sortutako soldatetara mugatzen da, ogibide kolektiboen galera kontuan hartu gabe; eta merkatu globaletan, kasurik onenean, modu periferikoan eta mendekotasun-baldintzapean txertatzen da lurraldea. Aurreikus daitezkeen inpaktuak ezkutatu eta leuntzeko ildo beretik, beste leku batzuetan egindako antzeko esperientzietan dokumentatu diren eta hurrengo atalean azalduko ditugun ondorio ekonomikoak, ingurumen-arlokoak, politikoak eta soziokulturalak alde batera uzten dira.

Azken batean, megaproiektuak nork eta nola egiten dituen eta megaproiektuetan zer egiten den ezkutatzen duen estalkia da opakutasuna. Era horretan, botere korporatiboari aurre egiteko edozein estrategia demokratiko eragozten da.

Patroi korporatiboen ezaugarriekin jarraituz, bigarren ezaugarri bereizgarria enpresa handien jardunaren *dimentsioaniztasuna* da. Kontzeptu horrek megaproiektua abian jarri eta finkatu ahal izateko bultzatzen diren estrategien alderdi ekonomiko, politiko-juridiko, kultural eta komunikatiboen aniztasuna adierazten du. Estrategia horietan, kasu eta une bakoitzaren arabera, gizarte-legitimazioa lortu nahi duen ikuspegi bat eta legezko eta legez kanpoko kriminalizazio eta errepresioiko logika hertsagarriari jarraitzen dion beste ikuspegi bat uztartzen dira.

Era horretan, lehenik eta behin, megaproiektuaren inguruko kontakizun hegemoniko positiboa nagusitzea lortu nahi da (enpleguak, inbertsioa, toki-sarea eta abar), eta, horretarako, espero diren inpaktu positiboetara buruzko komunikazio-kanpaina handiak eta, behar izanez gero, *alderdiak eskatutako* ikerketa-kanpainak egiten dira. Horrez gain, lidergo sozial, politiko eta/edo erlijiosoaren kooptazioa zein mota orotako laguntza-ekimenak (eskolak, azpiegitura txikiak, ikuskizunak eta abar, hots, erakunde publikoek bermatu beharko lituzketen eskubideak) bultzatzen dira, gizarte-erantzukizun korporatiboko politikaren esparruan. Hori gutxi balitz, komunitatea zatitzeko dinamika jartzen da abian. Horretarako, eztabaida berriak sortu edo aurretik zeuden gatazkak areagotzen dira (hala nola kultura- edo erlijio-identitateari lotutakoak), eta, nolahi ere, patrio heteropatriarkalak eta baztertzailak¹¹, pobreen arteko gerra-logikak, arrazakeria eta abar indartzen dira, megaproiektuei lotutako lurraldearen gabetze kolektibo eta alterazio soziologikoaren esparruan.

Baina gaitzespenak eta erresistentziak irauten badute edo, besterik gabe, legitimazio-logika nahikoa ez dela ikusten bada, beste logika hertsagarri eta zapaltzaile bat gaineratzen zaio logika horri. Ildo horretan,

11 Hurrengo atalean ikusiko dugunez, megaproiektuen bidez sendotu egiten da soldataren (maskulinoa gehienetan) nagusitasuna diru-sarrera iturri gisa, eta, aldi berean, areagotu egiten da ondasun natural kolektiboen gabetzea; ondasun horien kudeaketan, emakumeek parte-hartze txikiagoa izan ohi dute. Era berean, lidergoen kooptazioak eta komunitatearen zatiketak gizonen ordezkari eta pisu politikoa indartzea dakarte. Azkenik, megaproiektuei lotutako prostituzioak eta aurrerabidearen eta garapenaren kontakizunaren oinarriak areagotu egiten dituzte komunitateak baztertu eta zatitzeko dinamikak. Aldi berean, eta gizonengan ohikoagoak izan ohi diren kooptazio-logika horien ondorioz, emakumeek protagonismo handiagoa hartu dute lurraldea defendatzeko borrokan, eta sendotu egin dituzte beren lidergoak.

protesta kriminalizatzeko lege-bide bat bultzatzen da (ziurgabetasun korporatiboaren egitura eta aliantza publiko-korporatiboa baliatuta), ustelkeriari eta influentzia-trafikoari lotutako dinamikekin batera. Are gehiago, egoeraren arabera, indarkeriazko estrategia bat inplementa liteke, zuzenean (korporazioaren beraren errepresioa indar pribatuen bidez) nahiz zeharka (poliziaren eta/edo militarren errepresioaren bidez). Front Line Defenders erakundearen arabera 2020an izan diren giza eskubideen eta ingurumenaren aldeko aktibisten 331 erailketek agerian uzten dute jardunbide hori egiturazkoa eta sistemikoa dela (FUHEM, 2018).

Horrela, beraz, enpresa-funtzionamenduko logiken espektroa oso zabala da. Enpresa handiek, beren nagusitasuna eta indarra baliaraziz, estrategia dimentsioaniztun bat garatzen dute, eta, estrategia horren barruan, testuinguruaren eta egoeraren arabera, ez zaio ezeri uko egiten espero den irabazia maximizatze aldera.

Espektro zabal hori, gainera, sektoriala ez ezik, denborazkoa ere bada. Eta iritsi gara jarduketa korporatiboaren hirugarren patroia komunera: megaproiektuen indarraldia eta iraupena planteatzean agertzen den *moldagarritasuna*. Megaproiektu batzuek epe laburreko ikuspegia dute, eta logika espekulatiboa erauzketa-ekimenari eta/edo produkzio-ekimenari berari nagusitzen zaio. Beste batzuek, berriz, epe luzeagoko ikuspegia dute, eta sortzen den kontrakotasun soziala, politikoa eta/edo judiziala gorabehera, lurraldea eraldatzeko apustuarekin eta beren interesen aldeko joko-arauekin jarraitzen dute.

Illo horretan, gero eta ohikoagoak dira egungo kapitalismoan finantzek duten nagusitasunaz jabetuta eta produkzio- eta erauzketa-jardueraren ondoriozko etorkizuneko etekinen aurreikuspenean oinarrituta funts espekulatiboak bizkor lortzera bideratuta dauden megaproiektuak (Ekologistak Martxan, 2019). Kasu horietako gehienak meataritzari lotuta daude, eta negozioa ez datza mineralen ustiapenean, kapitalen zuzeneko metaketan baizik.

Hortaz, metaketari ematen zaio lehentasuna. Horretarako, errentagarritasun-espazioen bila dabilzan finantza-agenteen funtsak erakartzen dira, eta geroago merkatu espekulatiboetan inbertitzen dira berriz. Megaproiektuarekin ustez garatu nahi den produkzio- eta erauzketa-jarduera, beraz, ez da berezko helburua. Aitzitik, aitzakia da, kapitalizazioa balidatzeko sortutako aurreikuspenen bermea (esplorazio- eta ustiapen-baimenen lorpena, arau-aldaketak, mineralen merkatu-prezioaren bilakaera eta abar).

Azken batean, megaproiektua abian jarriko ez balitz ere, ez luke zentzu korporatiboa galduko. Horrela, beraz, sortutako aurreikuspenetan oinarrituta metatutakoa eta/edo haren salmenta (beste agente bati, aurreikuspen horien arabera) berezko helburu bihurtzen da. Hala ere, aurreikuspen horiek ikuspegi luzeagoa behar badute, proiektua abian jar liteke, baina, normalean, erauzketa-formula merkeagoetan eta finantza-apustuak behar dituen errentagarritasun-aurreikuspenei eusteko berme txikiagoa ematen dutenetan oinarrituta. Era horretan, areagotu egiten da mota orotako inpaktu negatiboaren arriskua.

Aldi berean, ugaritzen ari diren epe laburreko megaproiektu horiekin batera, epe luzera eta espero diren itzulkinen eta egindako inbertsioaren arabera proiektatzen diren beste batzuk bultzatzen dira¹². Horretarako, multinazionalen eta komunitateen artean dagoen botere-asimetria handia baliatzen da, eta herri-erresistentziak eta/edo erakundearen erresistentziak higitzeko ahaleginak egiten dira, pixkanaka akituko direlakoan. Logika horri berari jarraikiz egiten diete aurre jasotzen dituzten ezbehar politiko eta/edo juridikoei (hala nola epaileak aginduta obrak geldiarazten direnean alde aurreko kontsultaren ondoren komunitatearen onarpena jaso ez dutelako, LANEren 169. hitzarmenak lurralde indigenetan egiten diren megaproiektuetarako eskatzen duenaren arabera), egiten duten presio nekaezinak etorkizunean indar-korrelazioak, borondateak eta araudiak aldatuko dituelakoan.

Horrela, beraz, enpresa handiek opakutasunaren, dimentsioaniztasunaren eta moldagarritasunaren inguruan agertzen duten jardunaren hainbat patroia ikus ditzakegu megaproiektuen aniztasunean. Esparru horrek botere korporatiboari aurre egiteko gakoetako batzuk lantzea ahalbidetzen digu: megaproiektuaren kate globalean parte hartzen duten korporazioak eta haien erantzukizun-maila ikertzea, megaproiektuaren inguruko trikimainak sozializatzea, kontakizun hegemonikoa desaktibatzea eta agenda alternatibo eta inklusibo bat ematea, estrategia korporatiboaren aniztasunaren aurrean erresilientzia agertzea, eta gizarte-erantzuna identifikatzea eta megaproiektuaren denbora-ikuspegiaren arabera egokitzea.

¹² Are gehiago, megaproiektu batzuk «hibernazioan» uzten dira, testuingurua eta/edo indar-korrelazioak aldatzen diren eta megaproiektu horiek garatzearen aldekoagoak diren arte.

2.2. Megaproiektuen inpaktuen esparrua

Megaproiektu bakoitzaren ondorioak kasu bakoitzaren baldintza zehatzen araberakoak dira. Parke eoliko baten eragina eta litio-meategi batena ez dira berdinak. Eta inplikazioak ere ez dira berdinak izango ekimen horiek Guatemalan, Senegalen, Txinan, Ameriketako Estatu Batuetan edo Espainiako Estatuan egiten badira. Hala ere, enpresa handiek eskala globalean diharduten eremua eta joko-arauak antzekoak dira, eta, horren ondorioz, estrategiak eta haien ondoriozko inpaktuak ere antzekoak dira.

Ilido horretan, eta azken hamarkadetan megaproiektu asko eta asko aztertu ondoren, megaproiektuen inpaktuak aztertzeko erreferentzia-esparru bat planteatzen dugu, lau kategorian oinarrituta: ekonomikoa, ingurumen-arlokoa, politikoa eta soziokulturala. Kategorian horietan, klasea, generoa eta etnia/ arraza hartuko dira kontuan, zeharkako ikuspegi saihetsezinak baitira.

Esparru horren helburua ez da megaproiektuek ezinbestez eragingo dituzten inpaktu guztiak identifikatzea. Esparruaren eduki guztiak ez dira ekimen korporatibo guztietan eta, jakina, intentsitate berarekin agertuko. Hala ere, esan dezakegu megaproiektu guztiak eragingo dutela inpaktu-motaren bat ondorengo taulan adierazita dauden kategorian, azpikategoria eta zeharkako ikuspegiatan.

Aldi berean, baieztatzen dugu inpaktu horiek ekimen bakoitzaren jardunbide zehatzean agertu edo ez, erreferentzia gisa baliagarriak direla ekimen bakoitzari lotutako jarduna ebaluatzeko garaian. Ilido horretan, kontakizun korporatibo opakuaren estutasuna gainditu dezakegu, eta imajinario hegemonikoan isilduta eta ezkutatuta egon ohi diren gabezien eta larrialdien berri eman dezakegu.

2. taula: megaproiektuen inpaktuen erreferentzia-esparrua		
Azterketaren kategoriak	Azterketaren azpikategoriak	Zeharkako ikuspegiak
<i>Dimentsio ekonomikoa</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Ondasunaren edo zerbitzuaren jabetza eta baldintzak - Altxor publikoaren gaineko eragina - Inplikazioak tokiko sare ekonomikoan - Ondasun komunez jabetzea/gabetzea - Lanak banatzeko dinamika erregresiboak 	<p>Generoa</p> <p>Klasea</p> <p>Etnia/arraza</p>
<i>Ingurumen-dimentsioa</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Energia-fluxuaren, materialen, hondakinen eta emisioen gaineko inpaktua - Ondasun natural kolektiboez jabetzea - Ekosistemen kutsadura eta degradazioa - Hondamendi-arriskuak 	
<i>Dimentsio politikoa</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Zigorgabetasunaren egitura juridikoak babestutako legezko ekimen politikoaren garapena - Zigorgabetasun korporatiboak babestutako legez kanpoko eta indarkeriazko ekimenen garapena 	
<i>Dimentsio soziokulturala</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Eraldaketa soziologikoak eraginpean hartutako komunitate eta biztanle-guneetan - Jardunbide sozial erregresibo eta baztertzailen aurrerapena - Eraginpean hartutako biztanle-guneen usadio eta ohitura kulturalen aldaketak 	

Iturria: geuk landua.

Egiturari dagokionez, kategoria, azpikategoria, zeharkako ikuspegi eta inpaktu espezifikoetan oinarrituta dagoen eta atal honen amaieran era sistematizatuan jaso dugun esparruaren abiapuntua da kontuan hartzea sail estankoak ezartzeak zaildu egin dezakeela megaproiektuek *bizi-bilbean* duten inpaktuaren ikuspegi integrala (Moore, 2020). Hala ere, beharrezko ariketa da ondorio pedagogikoetarako, eta, nolana ere, aztertutako elementu guztien arteko ezinbesteko erlazioa zehaztuko duen ikuspegi holistikoa bat hartu behar da.

Premisa horretatik abiatuta, «gizarte» eta «natura» kontzeptuen azterketa bereizi bat proposatzen dugu, kontzeptu horiek bereizezinak direla jakinik ere. Ildo horretan, gizakiaz kanpoko naturen multzoaren gaineko ondorioen azterketari lotutako kategoria bat (ingurumen-kategoria) eta giza naturen azterketari lotutako hiru gizarte-kategoria handiak (ekonomia, politika eta kategoria soziokulturala) planteatzen ditugu.

Lau kategoria horiek zentzu zabal eta inklusiboan ulertzen ditugu. Ildo horretan, «ekonomia», «politika» eta «kultura» gizarte-kontzeptuek hurrenez hurren merkataritza-alderdiarekin, erakunde-alderdiarekin eta arte-alderdiarekin lotzen dituzten ohiko esparruak gaingitzen dituzte.

Hortaz, dimentsio ekonomikoak merkataritza-arloan gertatzen diren inpaktuak barnean hartzen ditu, jakina. Azterketan, beraz, zerbitzuaren jabetzari eta baldintzei lotutako alderdiak eta/edo megaproiektuari lotutakoak eta altxor publikoaren eta tokiko sare ekonomikoaren gaineko inpaktua txertatu dira. Baina, aldi berean, pertsonak eta komunitateek beren bizitzak materialki erreproduzitzeko duten ahalmen errealean eragina duen oro hartzen da kontuan. Halaber, bizitza duina bermatzeko estrategikoak diren ondasun komunak jabetzaren, kontrolaren eta eskuratzeko aukeraren gaineko eragina eta megaproiektuak aldatzen eta/edo areagotzen duen lanen banaketa asimetrikoaren dinamika lantzen ditugu.

Bizitzeko oinarri materialari lotuta, halaber, ingurumen-dimentsioa dago. Ingurumen-inpaktutzat hartzen dugu material, energia, hondakin eta emisio kutsatzaileen aurreko fluxuak eraginpean hartzen dituen inpaktua, normalean hazkunde- eta gabetze-logika bati erantzuten diona. Halaber, koherentziaz, bizitzak erreproduzitzeko ezinbestekoak diren ondasun naturalen jabetze korporatiboko dinamikak eta ekosistemen kutsadura eta degradazioa jaso ditugu. Azkenik, ondorio gisa, hondamendiak (baso-soiltzeak, uholdeak, suteak eta abar) gertatzeko arriskuaren areagotze posiblea jaso dugu.

Gure esparruaren azalpenarekin jarraituz, dimentsio politikoari aurreko kategoriei emandako espektro zabal bera aplikatu diogu. Ildo horretan, inpaktutzat hartzen dugu eztabaida politiko bat aldatzeko dinamika oro –alderdi juridikoa barnean hartuta, eztabaida hori legitimatzeko esparru ofizial gisa–, dinamika horretan legezko, legez kanpoko zein legez kontrako ikuspegietan oinarrituta premia, interes eta subjektu desberdin eta asimetrikoek parte hartzen dutenean.

Hortaz, legearen esparruan aliantza publiko-korporatiboaren logikan oinarritzen diren logika opaku eta dimentsioaniztunen azterketa integrala dugu abiapuntu: informazioa, baimenen lorpena, erabakiak hartzea, kooptazioa, arau-aldaketak, laguntza publikoak, buruzagien judizializazioa eta kriminalizazioa eta abar. Baina, horrez gain, enpresa transnationalek eztabaida horren emaitza aldatzeko garatzen dituzten legez kanpoko eta legez kontrako ekimenak ere aztertzen ditugu, hala nola ustelkeria, gutxieneko demokratikoen desgaitzea (alde aurreko kontsulta libre eta informatu baterako eskubidea, adibidez), indarkeriaren erabilera, errepresioa eta lurraldeen militarizazioa.

Azkenik, inpaktu soziokulturalaren kategorian, lehenik eta behin, megaproiektuaren zuzeneko eta zeharkako ondorioak diren eraldaketa soziologiko guztiak jasotzen dira, hala nola osasunari eta osasungarritasunari lotutako inplikazioak, desparekotasunak, gizarte-kohesioaren maila, behartutako desplazamenduak eta abar. Ildo horretan, bereziki azpimarratu nahi dugu enpresa-ekimenaren nagusitasunari lotutako bazterkeria-, menderatze- eta indarkeria-jardunbideen sendotzea eta/edo sorkuntza (birpatriarkalizazio-prozesuak, arrazakeria, gorroto-delituak eta abar). Bigarrenik, megaproiektuak eraginpean hartutako komunitate eta herritarren usadio eta ohituretan duen inpaktua jaso dugu.

Kategorien eta azpikategorien esparru horretan, nolana ere, klasea, generoa eta etnia/arraza hartzen dira kontuan, zeharkako ikuspegi gisa. Izan ere, agerian uzten dute megaproiektuek subjektu eta sektore bakoitzaren egoeraren eta posizioaren arabera duten eragin asimetrikoa. Megaproiektuen inpaktua argi

eta garbi adieraztea eta inpaktu horri protagonismoa ematea lagungarria da azterketarako, eta ezkutatu ohi diren gabeziak eta larrialdiak azpimarratzea ahalbidetzen du.

Illo horretan, megaproiektuen inpaktua desberdina da klasearen arabera, eta baliabide gutxien dituzten eta eragiteko ahalmenik txikiena duten herri-sektoreek bereziki jasaten dituzte megaproiektuen erasoak.

Aldi berean, megaproiektuen ondoriozko logikak kontuan hartuta (ondasun komunen gabetzea, soldataren nagusitasunari lotutako maskulinizazioa, lidergo patriarkalen sendotzea, dinamika eta kontakizun baztertzailak, askotariko indarkerien garapena eta abar), generoa azterketa-funts estrategikoa da, logika horiek alde aurreko esparru heteropatriarkala bultzatzen baitute (García Torres, 2018).

Azkenik, kolonialtasuna, mendebalde-zentrismoa eta bazterkeria txertatuta dituen gizarte horretan, *etnia/arraza* ezinbesteko irizpidea da komunitatearen zatiketan, pagaburuaren bilaketan eta pentsamendu eta eredu bakarraren inposatze politiko eta kulturalen oinarrituta egon ohi diren megaproiektuak ebaluatzeko¹³. Eta ez dugu ahaztu behar megaproiektuek, sistemaren erdiguneetan gero eta zabaldugoa dagoen fenomeno izanik, logika inperial eta kolonial bati jarraitzen diotela oraindik ere. Logika horren arabera, lurralde periferikoak eta erdiperiferikoak *sakrifizio-eremuak* dira, eta, beraz, metaketaren zerbitzura baino ez daude.

Inpaktu horiek, berriz diogu, ez dira megaproiektu guztietan agertzen, ezta intentsitate berarekin ere. Hala ere, seguruenik inpaktuak agertuko dira kategorien, azpikategorien eta zeharkako alderdien esparruan gutxienez. Nolanahi ere, erreferentzia-esparruko edukiak lagungarriak izango dira beren ekintza-esparrua kontakizun ofizial estetik kanpo proiektatzen duten ekimen horien errealitatea sakontasun eta konplexutasun handiagoarekin aztertzeko.

2.3. Megaproiektuekiko erresistentziarako herri-gakoak

Megaproiektuen patroia korporatiboak eta haien ondoriozko inpaktuak aztertu ondoren, megaproiektuen inguruko hirugarren parametro komuna aztertuko dugu ondoren: enpresa transnazionalen kontrako borrokarako herri-gakoak.

Illo horretan, jarduketa-esparru orokor bat zehazten duen dekalogo bat planteatzen dugu. Dekalogo hori, testuinguruan behar bezala kokatuta, hainbat prozesu sozial eta komunitario aztertzeko, haiei ekiteko eta zabaltzeko tresna izan liteke. Dekalogoaren sistematizazioak enpresa handiek bultzatzen dituzten estrategia opaku, dimentsioanitz eta moldagarriei aurre egiteko jarduketa zein megaproiektuen kontrako herri-espereientziez osatutako historian pilatutako ikaskuntzak hartzen ditu kontuan.

Gure ustez, dekalogoak lagungarria izan liteke komunitateek eta mugimenduek estrategia korporatiboiei aurrea hartzeko eta estrategia propioak indartzeko. Jakina, horrek ez du esan nahi hemen azaldutako hamar gakoak ezinbesteko baldintza edo, are gutxiago, baldintza nahikoa direnik megaproiektu bat geldiarazi eta/edo desegiteko. Estrategia bakoitza honako faktore hauen arabera izango da: inplikaturako agenteen izaera, diharduten lurraldeko testuingurua eta bertako gobernantza-esparru politikoa. Hala ere, kontuan hartu beharreko erreferentziak dira, baliagarriak izango balira ere.

13 Zeharkako ikuspegiak ikuspegi intersektional batetik abiatuta lotzen zaizkie lau azterketa-kategoriei. Gainera, ahal den neurrian, ariketa konplexuago bihurtu beharko litzateke, eta zeharkako hiru ikuspegi emaitzak gurutzatu beharko lirateke, lotura estua baitago klasearen, generoaren eta etnia/arrazaren artean.

3. taula: herri-erresistentziaren 10 gako

1. Kontakizun alternatibo proposatiboa eta interseksionala	Demokrazia handiagoa Dimentsioaniztasuna eta erresilientzia Egituraketa sektoriala eta geografikoa
2. Ikerketa eta komunikazioa azpimarratzea	
3. Zuzeneko eta parte-hartzean oinarritutako demokrazia bultzatzea	
4. Erresistentzia dimentsioaniztasuna	
5. Erresistentzia erresilientea	
6. Ekintzaileen, defendatzaileen eta komunitateen segurtasunerako estrategia	
7. Eragin-estrategia juridikoa	
8. Lurraldean askotariko agenteak antolatzea	
9. Sare sektorialetan askotariko eskaletan antolatzea	
10. Megaproiektuaren nazioarteko katearen inguruan antolatzea	

Iturria: geuk landua.

Dekalogoaren gakoak gizarte-mugimenduen eta komunitateen agendari zein estrategia politikoari lotuta daude. Agendatzat hartzen dugu megaproiektuaren kontrako erresistentziaren oinarri den kontakizuna. Hortaz, egoeraren diagnostikoa ez ezik (testuinguruaren erradiografia, eragileen mapa, inpaktuak eta erantzukizunak), herri-sektoreek ekimen korporatiboari aurre egiteko bide alternatibo gisa proposatutako kontakizuna ere biltzen du. Estrategiatzat, berriz, gizarte- eta/edo komunitate-mugimenduak bere agendan aurrera egiteko bultzatzen dituen ekintza garrantzitsu, prozesu eta ekintzen sekuentzia hartzen dugu. Hau da, erresistentziak praktikan eta denboran izan duen garapena.

Agenda eta estrategia uztartzen dituen logika horretan oinarrituta, gure dekalogoaren funtsezko zutabe gisa lehenetsitako hiru eremu ditugu:

- *Demokrazia handiagoa*, opakutasun korporatiboaren ordez;
- Herri-erresistentzien *dimentsioaniztasuna eta erresilientzia*, enpresa handien dimentsioaniztasunaren eta moldagarritasunaren ordez;
- *Egituraketa sektoriala eta geografikoa*, megaproiektuak ahalbidetzeko sustatutako gardentasunik ezaren eta gizarte-zatiketaren ordez.

Hiru eremu horietan oinarrituta, megaproiektuen kontrako herri-erresistentziarako hamar gakoaren proposamena azalduko dugu ondoren:

1. *Kontakizun alternatibo proposatiboa eta interseksionala*¹⁴. Kontakizun korporatiboari aurre egiteko, garrantzitsua da megaproiektuaren kontrako kontakizun positibo bat posizionatzea, lurraldean bizi diren pertsonen eguneroko bizitzan oinarritutako dena, eta, lurraldeko askotariko subjektu eta sektoreen arteko gatazkak eta menderatzeak ahaztu eta haiei erantzuteari utzi gabe, herri-jarduketako esparru inklusibo eta emantzipatzaile bat proiektatuko duen imajinario interseksional bat proiektatuko duena. Ildo horretan, megaproiektuaren kontrako agendak babes handiagoa jaso lezake, baldin eta:

14 «“Interseksionalitate” terminoa desberdintasun-iturri estrukturalak (hala nola klase soziala, generoa, sexualitatea, dibertsitate funtzionala, etnia, nazionalitatea, adina eta abar) elkarri lotuta daudela adierazteko erabiltzen da. [...] Aniztasunaren deskribapenean oinarritutako “diskriminazio bikoitz” (edo hirukoitz, lauokitz eta abar) izenokotik haratago joan nahi dugu. Ez dugu onartzen pertsonen bizipenak hainbat desberdintasunen edo bazterketa-motaren batura izatea [...] Baliagarriagoa da desparekotasun moten arteko elkarrekiko erlazioen ondorio esponenzialei [...]erreparatzea». Lucas Plateroren definizioa Pikara Magazine-ko [Glosario](#) delakoan.

- a. Ikuspegi negatibo batetik ez ezik (megaproiektua desegitea), ikuspegi positibo batetik ere (proposamen alternatiboa) eraikiko balitz. Ildo horretan, garrantzitsua da aurrera egiteko bide bat egotea, hots, nonahikotasun korporatiboari eta alternatibari ezaren logikari aurre egiteko bidea garbitzea ahalbidetuko duen helmuga emantzipatzaile eta bideragarri bat.
 - b. Komunitatean errotuko balitz. Horretarako, lurraldean eta bertan bizi direnen gorputz kalteberetan aurreikusitako inpaktuekin eta komunitatea osatzen duten pertsonen oinarri material eta kulturalaren gaineko inpaktuarekin lotu behar da megaproiektua. Aldi berean, agendaren oinarri izango den kontakizunak sinplea izan behar du, eta toki-eremua gainditzen duten fenomenoak lurralde-ikuspegitik azaltzeko erronkari erantzun behar dio.
 - c. Egoeraren eta megaproiektuaren inpaktuen diagnostikoa zein haren inguruko kontakizun alternatiboa erreferentzia-esparru inklusiboetatik abiatuko balira. Esparru horiek aniztasunean batasuna antolatzea ahalbidetu beharko lukete, eta, aldi berean, aurrez zeuden gatazkak argi eta garbi azaldu eta demokratikoki gainditzen saiatu beharko lukete.
2. *Ikerketa eta komunikazioa azpimarratzea.* Herri-agenda bat osatzeko, megaproiektuaren inguruko erantzukizun korporatibo eta publikoen arrastoari jarraituko dion eta megaproiektuaren kate globalean parte hartzen dutenak identifikatuko dituen ikerketa-alderdi bat behar da, lehenik eta behin. Ildo horretan, prozesurako funtsezkoa den «tokiko, estatuko, eskualdeko eta nazioarteko eragin-ibilbide» bat egongo litzateke. Bigarrenik, funtsezkoa da megaproiektuaren izaera eta enpresa-ekimenaren ondoriozko inpaktuak egiaztatzea, eta, aldi berean, beste leku batzuetan bultzatutako antzeko esperientziekiko konparazio-azterketa bat egitea.

Ikerketarekin batera, komunikazio publikoa borrokarako oinarrizko tresna da. Hortaz, maila guztietako erantzukizun korporatiboak, inpaktuak (aurreikus daitezkeenak eta egiaztatuta daudenak) eta megaproiektuaren kudeaketa politikoaren izaera ez-legitimoa edo legez kontrakoa zabaltzea funtsezkoa da kontakizun hegemonikoa desegiteko eta agenda propioa indartzeko.

3. *Zuzeneko eta parte-hartzean oinarritutako demokrazia bultzatzea.* Herri-mugimenduan errotutako estrategia bat lantzeko, babes-oinarriari eusteko eta zabaltzeko eta politikoki eta mediatikoki eragiteko modu bakarra demokrazia indar-balio gisa kokatuko duen estrategia bati jarraitzea da. Hortaz, egiazko komunikazio publikoarekin batera, herritarren parte-hartze aktiboa, askotarikoa eta kalitatekoa kohesio-eta kontzientziazio-elementua da, baita aliantza publiko-korporatibo opakuak eragozteko elementua ere.

Ildo horretan, megaproiektuaren inguruko kontsulta aske eta informatuak, kabildoak, erreferendumak, batzar irekiak, kultura-ekitaldiak eta/edo ekitaldi politikoak bultzatzea (ahal bada, erakundeen laguntzarekin eta babesarekin, baina halakorik ezean ere bai) mugarri estrategikoa da.

4. *Erresistentzia dimentsioanitzia.* Botere korporatiboak bere estrategia dimentsio-espektro zabal baten barruan planteatzen duen bezala, herri- eta komunitate-mugimenduak, ageriko asimetriapean bada ere, askotariko ekimenak garatzeko ahalmena izan beharko luke bere helburua lortzeko. Ildo horretan, kontakizun komun baten eraikuntza, informazio argia eta gardena, komunikazioa, mobilizazioa, eragin sozial eta politikoa, estatuko eta nazioarteko aliantzak, erakunde-presioa, bide juridikoa eta abar ahal den neurrian erresistentzia-prozesu antolatuetan uztartu beharreko ildoak dira.

Aldi berean, eta joko-arauak eta joko-eremua kontuan hartuta, itun-ekimenekin batera eragin-fokua handiagotuko duten beste ekimen disruptibo eta desobeditzaile batzuk garatu beharko lirateke. Ildo horretan, mobilizazio handiak, obra ez-legitimoak eta/edo legez kontrakoak eragozteko planto-ekintza baketsu eta iraunkorrak, espazio publiko eta korporatiboak hartzea eta abar ere lagungarri positiboak izan daitezke desobedientzia zibilean oinarritutako megaproiektuarekiko erresistentzian, betiere beste elkarriketa- eta itun-ekimen batzuekin batera ausardiaz egiten badira.

5. *Erresistentzia erresilientea.* Multinazionalen eta komunitateen arteko botere-asimetria agerian geratzen da, halaber, strategiak bultzatzeko eta denboran eusteko ahalmenean. Hortaz, herri-agenda megaproiektuaren iraunaldira egokitutako behar da, ahal den neurrian. Megaproiektua nagusiki espekulatiboa bada, eta, beraz, epe laburreko ikuspegia badu, apustu korporatiboa zapuztea ahalbidetuko lukeen salaketa-, mobilizazio- eta eragin-dinamika sendo eta bizkor bat garatu beharko litzateke.

Megaproiektuaren ikuspegia epe luzekoa bada, berriz, erresilientzia funtsezkoa da. Helburuen eta ahalmenen arteko orekari buruzko analisia egin beharko litzateke etengabe, gatazka era baketsuan tenkatuko duen estrategia bat garatzeko, eta herri-agendaren esparrua eta babes-oinarria zabaldu beharko liriateke. Era berean, ekimen korporatiboa aurrera egiten ari dela ikusita, borrokari denboran eusteko baldintza egokiak bermatu beharko liriateke, hertsadura/errepresioko logika hipotetiko bati erantzungo dioten prozesuetan oinarrituta: erresistentzia-kutxak, estaldura juridikoa, barne-kohesiorako gune demokratikoen garapena, aliantza-sare zabala eta abar.

Nolanahi ere, komunitate-erresilientziarako elementu estrategiko bat borrokan dihardutenen sostengu materiala da. Hau da, komunitateek sostengua ahal den neurrian bermatzea ahalbidetuko dieten ondasunak eta alternatiba ekonomikoak izan behar dituzte, megaproiektuek dakarten gabetzearen eta soldata korporatiboaren nagusitasunaren amarruan erori gabe.

6. *Ekintzaileen, defendatzaileen eta komunitateen segurtasunerako estrategia.* Estrategia integral eta malgu baten gakoetako bat gizarte- eta komunitate-lidergoen zein mobilizatutako herritarren bizitzaren eta eskubideen segurtasuna bermatzea da. Ildo horretan, funtsezkoa da antolaketa sendotzea, arreta psikosoziala, harremanak finkatzea eta defendatzaile eta ekintzaileen babes fisikoa kontuan hartuko dituen agenda bat prestatuta izatea. Horretarako, arestian adierazitako alderdi guztiak bilduko dituen onarpen-, babes- eta disuasio-estrategia bat gara liteke (Santiago eta Vallies, 2020).

Aldi berean, komunitateen defentsa bera indartzea segurtasun-bermea da herritar guztientzat. Adibidez, herri afrokolonbiarraren guardia zimarroiak eta halako esperientziak erreferentziatzko formula egokiak izan litezke autozaintzarako eta babesteko.

7. *Eragin-estrategia politiko-juridikoa.* Halaber, herri-estrategiaren ezinbesteko integritasun eta malgutasunaren barruan, eta interes korporatiboen eta giza eskubideen arteko arau-asimetria gorabehera, estrategikoa da lege-esparruak (tokiko esparruak zein estatuko eta nazioarteko araudiak) ematen dituen lege-zirrikituak baliatzea. Ildo horretan, kriminalizatzen dutenaren defentsa juridikoz gain, bidezkoa da instantzia nazionaletan, lurraldez kanpokoetan eta multilateraletan tentsio politiko-juridikoari eutsiko dion eragin-logika bat garatzea.

Aldi berean, ahal den neurrian, eraginpean hartutako erakundeak botere korporatiboa arautzeko eta «behetik abiatutako zuzenbidea» eguneratzeko formulen aldeko sareetan sar litezke. Zuzenbide horretan, nolanahi ere, enpresa transnazionalak nazioarteko zuzenbideko subjektuak izango liriateke (gaur egun estatuak baino ez dira), eta figura berriak egongo liriateke ordenamendu globalean, hala nola sistema-krimenak¹⁵ jurisdikzio unibertsalaren esparruan (Ferrajoli, 2019).

8. *Lurraldean askotariko agenteak antolatzea.* Enpresa boteretsu eta opakuei aurre egiteko borrokaren dimentsioa eta intentsitatea, agenda intersektional baten beharra eta estrategia integral eta malgu bat garatzeko beharra kontuan hartuta, ezinbestekoa da antolaketa eta aliantzak helburu estrategikotzat hartzea. Puntu honetan, megaproiektua bultzatzen den lurraldea espezifikoki kontuan hartuta, funtsezkoa da, askotariko herri-mugimendua elkartzeaz gain, agenda eta estrategia komunari ekarpena egingo dioten beste agente batzuk ere gehitzea.

Ildo horretan, azpimarratu beharra dago honako hauen parte-hartze garrantzitsua: mundu akademikoa eta/edo ikerketa sozialari lotutakoa –herri-kontakizuna sendotuz eta enpresa-kontakizunari aurre eginez–, komunikabideak –foku mediatikoa handiagotuz–, kargudun publikoak –erakunde-estrategian lagunduz– eta legelariak –borroka eta defentsa komunitariorako lege-bideak garatuz–.

9. *Sare sektorialetan askotariko eskaletan antolatzea.* Antolaketa lurraldera mugatu ordez estatuko, eskualdeko edo nazioarteko babes-egitura sektorialak baditu, eraginaren eta mobilizazioaren ekintza-eremua handitu, ikerketa eta komunikazioari lotutako gizarte-agenda sendotu eta herri-estrategiaren

15 Sistema-krimenak konstituzionalki aitortutako giza eskubideen urratze masiboak izango liriateke, baina ezaugarri bereizgarrien artean ohiko delitu-elementurik ez dutenak: normalean katastrofikoa izan ohi den ekintzaren zein gertaeraren izaera zehaztugabea edo zehaztezina, eta egileen zein biktimen izaera zehaztugabea eta plurisubjektiboa (biktimak, normalean, herri osoak izan ohi dira, edo, are okerrago, gizateria osoa).

esparru integral eta malgua zabaltzen da. Ildo horretan, ura defendatzeko sareetan aktiboki parte hartzea, meataritzaren aurkako borroka, elikadura-burujabetza bultzatzea, energia-eredu publiko eta jasangarri bat bultzatzea eta abar tresna eraginkorrak dira logika korporatiboari aurre egiteko (Gómez et al, 2014). Era berean, greba globalak edo nazioarteko beste neurri batzuk eragin litezke erresistentzia eta eragin kolektiboko formula gisa.

10. *Megaproiektuaren nazioarteko katearen inguruan antolatzea.* Azkenik, eragin eta erantzun sozialak ahotsa zabaltzen du eta eragin-/erresistentzia-esparrua handitzen du megaproiektua inplementatzen den lekura mugatzen ez bada eta, horren ordez, megaproiektuaren kalte globala osatzen duten enpresek egoitza duten lurraldeetan ere antolatzen bada (batez ere prozesuaren «operazio-zentroko» lurraldeetan). Ildo horretan, finantzaketatik inplementaziora parte hartzen duten enpresen jatorrizko lurraldeetako agente sozial, politiko eta mediatikoekiko aliantza lagungarria da erantzuna, agenda eta estrategia sendotzeko eta arrail korporatiboak handitzeko.

Horixe da, gure ustez, megaproiektuek dakarten lurralde-erasoaren aurrean botere korporatiboari aurre egiteko estrategia bat planteatzeko garaian kontuan hartuko beharko litzatekeen gakoek dekalogoak, betiere testuinguru, agente eta kasu bakoitzera behar bezala egokituta. Laburbilduz, lehenik eta behin, enpresa-opakutasuna desagerrarazi nahi da, herri-demokrazia zabaltzearen bidez; bigarrenik, borrokaren denbora-esparrura egokitutako ahalik eta estrategiarik zabal eta askotarikoena garatzea proposatzen da, betiere ahalmen propioaren arabera; eta hirugarrenik, askotariko eskaletan antolatu beharra azpimarratzen da, batez ere megaproiektuaren kate globalaren barruan, ezinbesteko baldintza baita estrategia integral eta malguan aurrera egiteko.

4. Bibliografia

- Nazioarteko Energia Agentzia (2021): «El papel de los minerales críticos en las transiciones energéticas limpias», NEA.
- Andaluz, Javier; Monedero, Sagrario; Nualart, Josep (2021): «Hidrógeno: ¿La nueva panacea? Mitos y realidades del hidrógeno en España», Ekologistak Martxan eta ODG.
- Ash, Michael eta Louça, Miguel (2019): «Sombras. El desorden financiero en la era de la globalización», Sylone, Bartzelona.
- Fernandes, Marianna (2020): Entre apps y bots: qué está en juego para las mujeres trabajadoras en la economía digital?, honako honetan: «Crítica feminista al poder corporativo: textos para la acción, 2020», Emakumeen Mundu Martxa.
https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo_ES-Pronto.pdf
- Fernández, Gonzalo (2020): El poder corporativo al asalto de los territorios. Claves para la resistencia popular a los megaproyectos, honako honetan: «Territorios en conflicto. Claves para la construcción de alternativas de vida», Gernika Gogoratuz, Gernika.
- (2018): «Mercado o democracia. Los tratados comerciales en el capitalismo del siglo XXI», Icaria, Bartzelona.
- (2016): «Alternativas al poder corporativo. 20 propuestas para una agenda de transición en disputa con las empresas transnacionales», Icaria, Bartzelona.
- Ferrajoli, Luigi (2019): «Los crímenes de sistema y el futuro del orden internacional». Derechos En Acción 12 (12), 299. or., Argentina.
- FUHEM (2018): «Extractivismos, poder y violencia», Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global, 143 zk., 2018ko udazkena.
- García-Torres, Miriam (2018): «El Ibex 35 en guerra contra la vida», Ekologistak Martxan eta OMAL, Madril.
- Gómez, Anahí et al (2014): «Resistencias sociales en contra de los megaproyectos hídricos en América latina», honako honetan: European Review of Latin American and Caribbean Studies / Latinoamerikako eta Karibeko Azterlanen Europako Aldizkaria, October 2014, 97 zk., 75-96. or.
- González, Erika, Casado, Beatriz eta Fernández, Marta (2020): «Fondos públicos, negocios privados», OMAL, Madril.
- Hernández, Juan eta Ramiro; Pedro (2015): «Contra la lex mercatoria. Propuestas y alternativas para dismantelar el poder de empresas transnacionales», Icaria, Bartzelona.
- Nazio Batuak (2011): «Principios rectores sobre empresas y derechos humanos», NB, Geneva.
- Martí, Júlia (2021): «Internacionalización empresarial, ¿A cualquier precio? Megaproyectos con participación vasca en México», OMAL, Bilbo.
- Martija, Gorka (2021): «Internacionalización empresarial, ¿A cualquier precio? Megaproyectos con participación vasca en Colombia», OMAL, Bilbo.
- Moore, Jason W. (2020): «El capitalismo en la trama de la vida», Traficantes de Sueños, Madril.
- Pérez (2020): «Pactos verdes en tiempos de pandemias», Icaria, Bartzelona.
- Santiago, Irene eta Vallies, Vincent (2020): «La mesa de protección integral», Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) eta Mundubat Fundazioa.
- Santiago, Irene eta Vallies, Vincent (2020b): «El camino de la protección integral», Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) eta Mundubat Fundazioa.
- Talledos, Edgar (2018): «¿Qué es un megaproyecto?», honako honetan: Aurora F. Zacula et al., «Planes

geoestratégicos, securitización y resistencia en las Américas», Macapá, UNIFAP.

Turiel, Antonio (2020) «Petrocalipsis», Alfabeto, Madril.

Valero, Antonio eta Valero, Alicia (2021): «Thanatia. Los límites minerales del planeta». Icaria, Bartzelona.

Zorrilla, Carlos (2018): «Protegiendo a su comunidad. Contra las empresas mineras y otras industrias extractivas», Ekuador.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen eredu biberatzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
- 22.** Errenta eta aberastasun banaketaren desperekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
- 23.** Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
- 24.** Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martínez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
- 25.** Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
- 26.** Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomenoak. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
- 27.** Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.

